

# BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1367

*EBAZPENA, 2023ko martxoaren 6koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Ikastetxeen zuzendariaren 2015eko maiatzaren 8ko Ebazpena, Donostiako «Musikene» Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegi baimenduaren Orkestra Ikasketen Irakaskuntza Artistikoa Masterraren ikasketa-plana argitaratzeko agintzen duena.*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (abenduarien 29ko 3/2020 Lege Organikoak eta uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatua) araututako goi-mailako ikasketa artistikoen antolamendua ezartzen duen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren (urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatua) 7.1 artikuluan jaso bezala, Irakaskuntza Artistikoen Goi Mailako Titulua eta Masterra eskaini ahal izango dute goi-mailako irakaskuntza artistikoa ematen duten ikastegiekin.

Era berean, 1614/2009 Errege Dekretuaren 13.1 artikuluan ezartzen da zer prozedura jarraitu behar den goi-mailako irakaskuntza artistikoetako masterreko tituluen ikasketa-planak homologatzeko.

Orkestra Ikasketen Irakaskuntza Artistikoen Masterraren (hari-instrumentuak) ikasketa-plana aldatzeko izapide guztiak bete ondoren, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak onartu du aldaketa hori, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroaren eskuordetzaz.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 16. artikulua araberak, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren eginkizun eta eskumenetako bat da araubide bereziko irakaskuntzen ezarpenaren eta garapenaren programazioa eta diseinua, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren irakaskuntzak barne.

Horregatik guztiagatik, hau

**EBAZTEN DUT:**

Agintzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila Donostiako «Musikene» Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegi baimenduaren Orkestra Ikasketen Irakaskuntza Artistikoen Masterraren (hari-instrumentuak) ikasketa-plana, ebazpen honen eranskinean agertu bezala.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 6a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,  
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.

2023ko martxoaren 17a, ostirala

## ERANSKINA

IKASKETA-PLANA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSIKENE-EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIAREN ORKESTRA IKASKETEN IRAKASKUNTZA ARTISTIKOA MASTERRAREN (HARI-INSTRUMENTUAK) TITULUARENA

Tituluari dagokion jakintza-adarra: Arteak eta Giza Zientziak.

Masterraren egitura:

Moduluak	ECTS kredituak	Gaiak
I.– Nahitaezkoak	32	6
II.– Hautazkoak	2	2
III.– Kanpoko praktikak	20	1
IV.– Master amaierako lana	6	1
GUZTIRA	60	10

Ikasketa-plana:

Moduluak eta irakasgaiak	Iraupena / Izaera	ECTS
Heziketa instrumentala		22
Orkestra erreperitorioa	Lehenengo eta bigarren lauhilekoak / Nahitaezkoa	16
Instrumentu nagusia	Lehenengo eta bigarren lauhilekoak / Nahitaezkoa	6
Prestakuntza osagarria		8
Orkestra erreperitorioaren historia eta bilakaera estilistikoa	Lehenengo lauhilekoa / Nahitaezkoa	3
Orkestra erreperitorioari aplikatutako analisisa	Lehenengo lauhilekoa / Nahitaezkoa	3
Orkestraren lanari aplikatutako gorputz teknikak	Lehenengo eta bigarren lauhilekoak / Nahitaezkoa	2
Aukerakotasuna (aukeratu beharreko irakasgai bat)		2
Orkestraren eta orkestrazioaren historia	Bigarren lauhilekoa / Hautazkoa	2
Akustika aplikatua	Bigarren lauhilekoa / Hautazkoa	2
Praktika profesionalak		20
Orkestra Sinfoniko Profesionaleko Praktikak	Lehenengo eta bigarren lauhilekoak / Nahitaezkoa	20
Ikerketa modulua		8
Ikerketaren metodologia	Lehen lauhilekoa / Nahitaezkoa	2
Master amaierako lana	Bigarren lauhilekoa / Nahitaezkoa	6
Masterreko kredituak, guztira		60